



Kultura

'EKAITZA ETA BESTE 34 IPUIN'

Kotoi usaina

Egilea: Kate Chopin. Itzultzailea: Joxe Mari Berasategi. Argitaletxeak: Erein-Igela.

Nagore Fernandez -

2022ko otsailak 20



0



Erein eta Igela argitaletxeek elkarlanean argitaratutako Literatura unibertsala bildumaren parte da Kate Chopin idazle amerikarraren *Ekaitza eta beste 34 ipuin* liburua. Joxe Mari Berasategik euskarara ekarritako obrak, idazlearen 35 ipuin biltzen ditu, eta esan genezake batu ere egiten dituela. Izan ere, ez da Chopinek berak hala atondutako eta argitaratutako ipuin liburua, ezpada euskarazko itzulpena osatu dutenen hautu bat, idazleak bere bizitza guztian zehar barreiatuta utzi dituen obren hautaketa eta aurkezpen proposamen bat, hain zuzen. Dena den, ez da kontakizunen metaketa huts bat, argitaratu diren data errespetatu eta horren arabera hurrenkeratu den proiektu (literario) bat baizik, zeinak, idazlearen beraren umotzea ere erakuts diezagukeen. Proiektu bat dela esatean, gainera, ez naiz ari antolamenduaz eta kanpo egituraz bakarrik, asko dira elkarrekin josten diren hariak: espazioari kotoi usaina dario, XIX. mendeko Ameriketako Estatu Batuetako plantazioak baitira kontakizun gehienen agertokiak, eta berebiziko garrantzia hartzen du Louisianako Natchitoches-eko parajeak. Bazterreko paisaien alde egin du pertsonaiak irudikatzean, bestelako protagonismoa hartzen baitute subalternoek, eta euren ahotsak eta karakterizazioa mimoz eta duintasunez eraikita dagoela antzemango du irakurleak.

Aurrekoarekin batera, azpimarragarria zaigu hizkuntzen erregistroen aldeko hautua. Batetik, euskarara ekarrita egon arren, itzultzaileak, han-hemenka, frantsesezko esapideak eta esaldiak dakartza, eta horrek sinesgarritasuna erantsi die pertsonaiei eta testuinguruari. Bestetik, euskararen beraren trataeran ere esango nuke ausardia erakutsi duela Berasategik, pertsonaiek ahotan duten erregistroa bakoitzaren klase sozialaren araberakoa baita; piramidean behegokoko klaseek euskalkian dihardute, erdialdeko sartaldekoan ausartuko naiz esatera, estratu sozial goragokoek, ostera, jasoan hitz egiten dute, euskal testu klasikoenetatik edan duen batuan, hain zuzen. Imajinatzen dut jatorrizko testuan ere askotariko erregistroak agertu direla pertsonaien klase soziala zein den, eta itzultzaileak, neurri batean, hori bera transmititu nahi izan digula euskaraz ere. Alde horretatik, hautu koherentea eta zentzuzkoa iruditu zait Berasategirena; ordea, erabilera horrekin pertsonaiek sinesgarritasunean irabazi badute ere, eta jatorrizko testua dagoen-dagoenean errespetatu bada ere, iruditzen zait testuaren ulergarritasuna sakrifikatu duela horrek.

Guztiarekin ere, 35 bizitza puska aurkituko ditu irakurleak orriotan: *bizitza* diot, egunerokoa *leitmotiv*-a baita obran, eta *puskak*, hasiera asko eraikitzen baititu autoreak, baina bukaera zehatz eta itxirik ez dutelako kasu gehienetan. Idazleen artean, bi joera nagusitzen dira istorioak kontatzeko unean: *showing*-a maite dutenak, hau da, gertatzen dena ekintzen bitartez erakusten dutenak; *telling*-a nahiago dutenak, gertatutakoa hitzez kontatzen dutenak. Ipuinotan, ordea, parez pare jartzen dira bi estiloak eta hutsuneen alde egiten, bai hitzez, bai ekintzez; erakusten ez denetik kontatzen zaigu.

Sareko BERRIAzalea:

Irakurri berri duzun edukia eta antzekoak zure interesekoak badira, eskari bat egin nahi dizugu: *Berria* diruz babestea.

Zuk eta zure gisako sareko milaka irakurlek egindako ekarpenarekin, eduki gehiago eta hobeak sortuko ditugu. Eta, zuekin osatutako komunitateari esker, publizitateak eta erakundeen laguntzek bermatzen ez diguten bideragarritasuna lortuko dugu.

Euskarazko kazetaritza libre, ireki eta konprometitua eskaini nahi dizugu egunero; bizi zaren munduaren eta garaiaren berri ematen segitu.

Izan BERRIALaguna

Gaiak


Joxe Mari Berasategi

Literatura euskaraz

Literatura

Arteak eta kultura

Albiste gehiago



«Teoriarekin bakarrik geratzea da arriskurik handiena kantuan»

JOSUNE ZARANDONA - GIPUZKOAKO HITZA

Garmendiak gurasoei zor die musikari dion maitasuna. Akordeoia jotzen hasi zen, baina kantuak beste ate batzuk ireki zizkion oso gaztea zela. Operan ondu du ibilbide profesionala; bide berriak arakatzeari ekin dio. Lanbideagatik, Alemanian bizi da.

Pentsamenduen gatibu

PAULE BILBAO AJURIAGERRA



Agatha Christie, edo misterioaren magia


JOANNES JAUREGI

Agatha Christie idazle ingelesak ondo merezita dauka 'hilketaren erregina'-ren titulua. Haren istorioek misterio klasikoaren generoa ezaugarritu dute, eta aise berritzen dituzte irakurleak urteen joanarekin.

Zergatik NOLA?

ION CELESTINO

Astekaria

Asteko gai hautatuekin osatutako albiste buletina. Astelehenero, ezinbesteko erreportajeak, elkarrizketak, iritziak eta kronikak zure posta elektronikoan. Pribatutasun politika eta [Lege informazioa](#) irakurri ditut eta onartzen ditut

idatzi zure posta elektronikoa

Harpidetu

Gehien irakurriak

1 «Aspergerra dugunok oso literalak izan ohi gara»

MIREN GARATE - GIPUZKOAKO HITZA

2 Athleticek nagusitasunez irabazi du derbia

PAULO OSTOLAZA

3 EAKo ildo kritikoak «alderdiaren demokratiziorako talde eragilea» sortu du

PAULO OSTOLAZA

4 «Oso pozik nago Oloso Dorrea herriaren esku geratu delako»

ANE INSAUSTI

5 Langileak

ONINTZA ENBEITA

0 Comentarios [Berria](#) Política de privacidad de Disqus

Acceder ▾

Favorite

Tweet

Compartir

Ordenar por los más nuevos ▾

Sé el primero en comentar...

INICIAR SESIÓN CON

O REGISTRARSE CON DISQUS



Nombre

Sé el primero en comentar.

Suscríbete

Añade Disqus a tu sitio web

Do Not Sell My Data

DISQUS

JARRAITU

 Facebook
 Twitter
 Instagram
 Youtube
 RSS

LEGEA

Lege Informazioa
Pribatutasun politika
Cookieak
Zozketak
Lan eskaintzak
 Lizentzia
Publizitatea
Bidera zerbitzuak
MIDAS Media



zerbitzua eta
lana euskaraz



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



Gipuzkoako Foru Aldundia



UZEI

emakumeen eta gizonen
berdintasunerako
lankidetzaz erakundeak



Fondo Europeo de
Desarrollo Regional (FEDER)
"Una manera de hacer Europa"
Europar Batasuna
Unión Europea
Euskaldea Garapenerako
Europar Funtsua (EDEF)
"Europa egiteko modua da"

berria
taldea

berria

bidera
zerbitzuak

HITZA

Mauka

BADOK

